

opusdei.org

Laurogeita hamargarren urteurrena

Urte hauetan asko aldatu da
emakumeen egoera

2020 Ots 13

Josemaria Escrivak Opus Dei
sortzeko Jainkoaren goi-argia hartu
zuenean, 1928an, berehala hasi zen
lanean gizonezkoekin, ustez
emakumerik ez zela izango Opus
Deiren barruan. Eta pentsatu ez ezik
idatzita utzi zuen ere: **Inoiz ez da
izango emakumerik- ezta**

txantxetan ere- Opus Dein. Hura idatzi eta handik hamabost egun pasa baino lehen, meza ospatzen ari zela, Jainkoaren inspirazio berri bat jaso zuen: Jainkoak emakumeak ere nahi zituen Opus Dein. Otsailaren 14a zen, orain dela 90 urte, hots, 1930. urtean. Badirudi Jainkoak pixkanaka azaldu nahi izan ziola bere nahia, ez kolpe batean.

Laurogeita hamar urte hauetan asko aldatu da emakumeen egoera. Ez zuten orduan emakumeek gaur egun dugun askatasuna inoren baimenik gabe mugitzeko munduan barrena, gehien-gehienak ez ziren unibertsitarioak, eta prestaera eskasa izaten zuten etxeko lanetan ez izatekotan. Hala ere, Jaunaren nahia izanda, posible izango zela jakinez, Escrivak aurrera jo zuen. Orduan amets hutsak ziruditen apostolutza lanak pixkanaka sortzen hasi ziren, bere fedeari eta lehenengoen fideltasunari esker. Fideltasunhorren

fruituen artean, joan den urtean
ikusitako ahal izan genuen Guadalupe
Ortiz de Landazuriren, Opus Deiko
lehenengo emakumeetako baten
beatifikazioa, baita haren eragina lan
egin zuen leku guztietan.

Gaur egun daramagun
bizierakbadirudi ez digula gertaera
garrantzitsuak bururatzeko lekurik
uzten eta, alderantziz, askotan eragin
gutxiko gertakariei buruan bueltak
ematen gabiltza jo eta ke. Zein ongi
datozen urteurrenak benetan pena
merezi duten gauzetan pixka bat
pentsatzeko. Alde batetik eta
lehenbizi, noski, Jainkoari dohain
hori eskertzeko, kontaezinak baitira
laurogeita hamar urte hauetan
zehar, Opus Deiko emakumeen
apostolutza lanen emaitzak mundu
osoan.

Bestetik, etorkizunari begira,
mundua errealismoz baina baita
itxaropenez ere begiratzen jakin

dezagun. Badago munduan jende on ugari, gazteen artean ere bai, bihotz zabal, solidarioak, ideal handiak dituztenak. Horiei lagundu behar zaie beren idealak gauzatzen naturaz gaindiko ikuspuntutik. Jaunari eskatu behar diogu gutako bakoitzak erantzukizunez eta profesionalki jakin dezagun ideiak eta proiektuak ematen apostolutza lan handi honi.

Azkenik, ezin ahaztu, Jainkoari eskerrak ematea emakumeari eman dion dohain bereziengatik. Opus Deiren fundatzaileak zioenez, “... emakumea deitua dago familiara, gizarte zibilera eta Elizara bere ezaugarri bat, berezkoa duena eta berak bakarrik eskain dezakeena, eramatera: bere samurtasun leuna, bere eskuzabaltasun asperrezina, zehaztasun zaletasuna, buru argitasun azkarra, bere intuizio gaitasuna, bere jainkozaletasun sakon eta xumea, bere iraunkortasuna...” (*Solasaldiak...* 87).

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/laurogeita-hamargarren-
urteurrena/](https://opusdei.org/eu-es/article/laurogeita-hamargarren-urteurrena/) (2026 Mar 10)